




AZKAIN

Larrun (Miramar)



Distantzia 13,8 km	Desnibela 898 m	Iraupena 5h00	Tipologia Itzulia	Zedarrak PR seinaleak (horia)
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---

Azkaineko hiri-barnera joan eta erromatar zubiko aparkalekuan utz ezazu autoa. Hortik, herritik pasatzen diren seinaleak segi itzazu eta Harrobian aparkalekuaren gainean den ibilbidearen abiapuntura joan zaitez.

GPS datuak: **UTM : 611580 - 4798798 Lat/Long : 43.33374/-1.62359**

Izan gaitzen usaiako edo noiztenkako ibiltari, Larrun gailurrerako ibilaldia saihestezina da, gailur hau hain orotan agertzen baita Lapurdiko paisaian. Igoaldia herrikoa da, kirol motakoa, eta "Azkaineko bidea", Miramar goi-zelaitik, itxura anitzekoa eta panoramikoa da.




1. ZATIA > Aparkalekutik "aranondoko" bidegurutzera

UTM: 611580 - 4798798

Harrobian aparkalekuaren gaineko zatian (135 m - komunak), eskuin hartu, oihanean lehen bihurtune bat marrazten duen bidexkan. Doi bat gorago, bide zabala moztu eta parean igotzen segitu bidexka arrokatsuan. Bide zabal batera heltzen da, igotzen segitzen dena, otez eta iratzez apaindutako patarrean bihurtune handi bat marrazteko. Gero, Iturriederreta ibarxkan sartu; handik Larrun gailurra ikusten dugun. Bide zabalean segitu etxola bat eta bi pago iragan ondotik.

2. ZATIA > Ihizelai eta Miramar goi-zelaitan

UTM : 611218 - 4797694. Erreka baten pasabidean (aranondo eta ezponda), bidegurutze batera heldu (388 m): parean den bidexka utzi eta eskuin segitu bide zabalean. Borda baten ondotik, artzain-ibarxka bat eskuinaldetik igo, Larrunera eta itsasbazterrerako ikuspegiarekin. Ondotik, ihizelai goi-zelaita ezkerretik zeharkatu, zuhaitz lerro batera hurbiltzeko. Errekasto bat eta gero (518 m), nekosta zokotik ezker ibili eta bide zabalean segitu (eta eztena). Kaperabaten ondotik pasatu eta, hurrengo Y gunean, ezker, pinu landako goi-buruan den bidea hartu, kasko borobildua iragan arte.



3. ZATIA > Errepausu lepoa eta Larrunera azken igoaldia

UTM: 610973 - 4797021

Bidexka batzuen elkargunera iritsi (550 m), ibi lauzatutik hurbil: eskuineko bidexka hautatu, iratze artean. Bi minutuan, Errepausu lepora iristen da (574 m); ezkerreko bidexkan segitu, Larrunen parean. Bidexka argigune batetik igotzen da, eta azken zuhaitzen heinean, eskuinera doa azken igoaldia hasteko, agerian. Bide nagusiko bihurtune erregularretan egon, lauzat lodiz hornitua. Bukaeran, taulatxo hori batek lurrezko bidexkatik zati zutenean bukatzeko seinalatzen du, bi koloreetako antena begizatuz. Tren ttipiko burdinbidea zeharkatu eta eskailerak igo orientazio mahairaino.

4. ZATIA > Errepausu lepora itzultzea

UTM: 610655 - 4796038

Larruneko eskaintzen duen ikuspegi zoragarriaz eta bere terrazetat gozatu ondotik (905 m), ibilbide beretik jaitsi (bihurtuneak moztu gabe higadura murrizteko) Errepausu leporantz (574 m). Lepoan, iratzedian den bidexka berriz hartu eskuin, hurrengo bidegurutzeraino.

5. ZATIA > Iturriederreta ibarxkatik jaitsi

UTM: 610973 - 4797021

Ibi lauzatutik hurbil den bidegurutzean (550 m), aldi honetan ezkerrean utzi igoaldiko ibilbidea eta erreka eskuinaldera zeharkatu. Segidan, ezkerrean joan zuhaitzen azpitik, bidexka seinalatuta segitzeko ("harrobian" norabidea). Oihan misto batean jaisten da eta, ondotik, kasko borobilduaren gainera jaisten, uharri eta harri mokorren artean. Behereko zatian, erreka baten ezkerreko hegira pasatu ikuspegi zabaleko bidexkan segitzeko. Horrela, aranondotik hurbil, etortzerakoan hartu duzun bide zabala berriz topatzen duzu; zuzen jaitsi aparkalekura itzultzeko.

INTERESGUNEAK

❖ **Miramarko kapera (3,3 km)**
Kapera tipia eta diskretutik hurbil, atsedean hartu Miramarko goi-zelai zintzilikaturako ikuspegi orokorraz gozatzeko.
UTM: 610675 - 4797281

❖ **Etxola (1,3 km)**
Larrungo hareharri mokorrez osatutako paretak, harri zabaleko lauzat zabalak zurezko zureri sendo baten gainean pausatuta, etxola noiztenkako olha bat da, luzaz abeltzainek erabiltzen zutena.
UTM: 611382 - 4798012

❖ Obeliskoa, Eugenia de Montijo-ren omenaldiz (5,4 km)

Napoleon III.aren esposa zen Eugenia de Montijo enperatrizarari aitaz gusatzen zitzaion Euskal Herria, bere jatorrizko Espainiatik hurbil, eta maiz egoten zen Biarritzen, bere zerbitzariak lagundurik. Ibilaldi bat antolatuta zuten, oinez eta mandoz, 1859ko irailaren 30ean; obeliskoak epopeia hura du goretzen.
UTM: 610745 - 4796007

❖ **Pudinga mokorrak (7,5 km)**
Larrungo hareharri gorriez bestalde, pudinga formazio arrokatsuen ere mendigunearen ezaugarri emblematikoa izaten dira.
UTM: 611230 - 4797185

❖ Eremu hezeak eta jale handiak diren landareak (8,05 km)

Bideen elkargunean, etengabeko jariatze batek eremu heze baten mantentzea segurtatzen du. Goroldioek eta esfagnoek lur arola estaltzen dute, baina eguzki-ihintz batzuk ere aurki ditzakegu, babestuak diren landare ttipiak, zeinen berezitasuna intsektujaleak izatea baita.
UTM: 611215 - 4797689

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Denbora txarrez saihestekoa
- Desnibel handia

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Azkaine, Harrobian aparkalekua, komunak, ur gunea
UTM: 611594 - 4798768
- 5,4 km: Larrun gailurra, ostatuak, jateak, orogarri saltegiak
UTM: 610655 - 4796038

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoaik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┐	└┐	└┐	◀
Itzul eskuin	┐└	┐└	┐└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gov.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAIN, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.